

1939-1945ko gerlaren oroitzapenak

E.: alemanak ikusi tuzu hemen...

K.: ba, araz! Ba, zaldi haundi batzuiñ gañean, kapote handi batzuiñ soñean eta hemen bidian pasatzen, ta ene anaiak, beldur baitzen heendako, ta zakur haundi re... Haundi batzuiñ re baitzuzten, beti zalutatzen ai zen, eta amatxik hemen barne huntaik erten zien: “ gaixo haurra! Hi aiko iz horien salutatzen ta horiek aita han preso atxiitzen dauiete!” , ola.

E.: zonbat denbora egon zauzien aita...

K. : be aita... Aita egon zen, joan zen agorriñ undarrian en treinte-neuf, eta jin zen urrian en quarante-deux.

E. : artean preso egonik?

K. : han egonik. Ta eskapatu zien; bide guzia huñez in! Egunaz kurri ta... Egunaz gordeik eta gauaz kurri, ez ikusiak izaiteko, berriz bildu ta gileat bearko baitzuten joan bestenez, ara, ta erten zien kontenxko Zuizan arribatu zuelaik, han baziela behizaiñak mendian hemen arzaiñak bezala, ta han esnia ta tarroak jan zutela, jatekoak denak finituik, gosiak ziela bi egun artan, ta han unsa jan zutela.

E.: bitxi egin zauzien sartu zelaik etxeat anbeste urteen burian?

K.: ba, bixtan dena, bagindakien eldu zela, eguerditan ukana zuten iakoitz bat, telegrama pietunak ekarri gure etxeok, ta telegrama ua leitu ta, denak biziki kontent, ta oseba baigindien emen, badakizu Jeanne, orren senarra, gure oseba hemen baitzen etxean, bizpahiru mando hemen bilduik, joan zen Mauleat, an zien xeka mauleat, ta mandotan arribatu zien emen, donc, otto, aita eta aitain laun bat, ua bezala han egonik, haekin eldu zena, Basusarriko, ta han zone occupée baitzen, à Bassussarry, hemen egon zen urritik marxo artio, ta gero han libratu zelaik, joan zen bere etxeat.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala